

BERBA-LAPIKO



Ahozketasuna lantzeko sekuentzia didaktikoa
Lehen Hezkuntzako 2. zikloa
Amaia García eta Arantza Galindez

Aurkibidea

| | | |
|------|--|----|
| 1. | Gida didaktikoa..... | 3 |
| 1.1. | Arloa..... | 3 |
| 1.2. | Gaia..... | 3 |
| 1.3. | Maila..... | 3 |
| 1.4. | Proposamenaren testuingurua..... | 3 |
| 1.5. | Oinarrizko gaitasunak..... | 3 |
| 1.6. | Helburu didaktikoak | 3 |
| 1.7. | Edukiak..... | 4 |
| 1.8. | Jardueren sekuentzia..... | 4 |
| 1.9. | Ebaluazioa..... | 4 |
| 2. | Helburuak eta lan-kontratua..... | 5 |
| 3. | Jarduerak..... | 5 |
| 3.1. | Berba-lapiko irratia..... | 6 |
| 3.2. | Berba eta berba..... | 8 |
| 3.3. | Dastatu euskararen lapikoa..... | 11 |
| 3.4. | El Pobaleko burdinola eta talo-tailerra..... | 14 |
| 4. | Bibliografia..... | 15 |

1. Gida didaktikoa

BERBA-LAPIKO

Arloa: Euskal Hizkuntza

Gaia: ahozketasuna

Maila: Lehen Hezkuntza. Hirugarren maila **Saio-kopurua:** 14

Proposamenaren testuingurua

Gaur egungo ikasleen arteko euskararen erabilera eskasa eta urria da, eta ikasleak, oro har, eskolan baino ez dira euskaraz mintzatzen. Nahiz eta euskaldun zaharrik ere badagoen, gaztelaniaz egiteko joera gero eta nabariagoa da, eta horri irtenbide bat eman behar zaiola uste dugu.

Gainera, gehienetan, idatzizko hizkuntza baino ez dugu lantzen ikasleekin; ahozko hizkuntza, ordea, jendaurreko irakurketara mugatzen dugu sarri, giza eta lan-harremanetan funtsezkoa izango zaien arren.

Kontuan hartuta hitz eginez ikasten dela, zenbait jarduera mota planteatuko ditugu Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleentzat.

Horrekin guztiarekin, zikloan zehar hizkuntza-gaitasuna sendotzea eta erabilera areagotzea espero dugu.

Landuko diren oinarrizko gaitasunak

- ✓ Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna (1., 2., 3. eta 4. jarduerak)
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna (1. eta 2. jarduerak)
- ✓ Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (1., 2. eta 3. jarduera)
- ✓ Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna (1., 2., 3. eta 4. jarduerak)

Helburu didaktikoak

- Ahozko hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea, komunikazio-premia guztiak behar bezala betetzeko.
- Modu bateko edo besteko ahozko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, eta komunikazio- eta ikaskuntza-egoera berrietan aplikatzea.
- Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, eta, horrela, komunikatzeko gaitasuna hobetzea.
- Gizarte-harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko interakzioetan parte hartzea.

- Komunikazio-harremanetan, lankidetza eta errespetuzko jarrera izatea.
- Eztabaidaren arauak ezagutzea.
- Autoebaluazioa eta elkarren arteko ebaluazioa egitea.
- Ahozko elkarrizketetan, euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izatea.

Edukiak

- Gizarte-hedabideetan ohikoak diren ahozko testuak
- Ahoskera eta intonazioa
- Elkarreraginean aritzeko arauak
- Ahozko diskurtsoa
- Eztabaidarako arauak
- Autoebaluazioa eta elkarren arteko ebaluazioa
- Komunikazio-harremanetan, lankidetza eta errespetuzko arauak

Jardueren sekuentzia

1. jarduera: Berba-lapiko irratia
2. jarduera: Berba eta berba
3. jarduera: Dastatu euskararen lapikoa
4. jarduera: El Pobaleko burdinola bisitatzen

Ebaluazioa

Adierazleak:

1. Ea ahozko interakzioetan parte hartzen duen.
2. Ea komunikazio-harremanetan errespetua adierazten duen.
3. Ea eztabaidaren arauak ezagutzen eta erabiltzen dituen.
4. Ea kontra-argudiatzeko egiturak erabiltzen dituen.
5. Ea elkarrizketa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko komunikazio-estrategiak erabiltzen dituen.
6. Ea bere iritzia ematen duen.
7. Ea autoebaluazio- eta elkarren arteko ebaluazio-jarduerak egin dituen.
8. Ea bere hizkuntza-mailari buruzko gogoeta egin duen.
9. Ea eztabaida-arauei buruz ikasitakoa beste testuinguru batzuetan erabiltzen duen.
10. Ea ahozko elkarrizketetan, euskara erabiltzeari dagokionez, jarrera positiboa eta aktiboa izan duen.

2. Helburuak eta lan-kontratua

Lehenengo eta behin proiektu batean parte hartuko dutela adierazi behar zaie umeei. Proiektua bera eta egingo ditugun jarduerak azaldu eta gero, ados badaude, lan-kontratua sinatuko dute.

| ZER EGINGO DUGU | ZER LORTUKO DUGU |
|--|---|
| Irratsaioa | Koherentziaz eta zuzentasunez mintzatzea. |
| Eztabaida | Gai bati buruzko iritziak aurrez aurre trukatzea, eta ikuspuntu desberdinen bidez elkar aberastea, partaidetzan eta askatasunean oinarritutako giro batean. |
| Euskalkien entzumenak | Euskalkiak entzutea, konparatzea eta kokatzea. |
| Txangoa El Pobaleko burdinolara | Euskalkiak jatorrizko tokian entzutea, ulertzea eta gozatzea. |

LAN-KONTRATUA

Nik,ikasleak, gogo handiz parte hartuko dut *Berba-lapiko* proiektuan. Ikaskideei laguntza eskainiko diet eta haien iritziak eta jokabideak errespetatuko ditut.

Ikaslearen sinadura

Irakaslearen sinadura

3. Jarduerak

1. jarduera: **Berba-lapiko irratia (irratsaioa)**

Lehenengo jarduera irratsaio bat egitea izango da. Ekintzaren helburua, koherentziaz eta zuzentasunez mintzatzea da. Horrez gain, irratia bitartez euskararen erabilera bultzatu, hainbat akats zuzendu, eta euskararen aldeko mezuak igortzea lortuko dugu.

Hasteko, umeak bosnaka bilduko dira eta talde bakoitzak bere irratsaioa prestatuko du. Horretarako, eredu bat entzungo dute irratsaioa zer den ezagutzeko:

<http://en.goeear.com/listen/56bbe77/lh-4a-ko-irradi-saioa-lh-4a>

Ondoren, ikasle bakoitza bere irratsaioa prestatzen hasiko da. Horretarako, lau saio erabiliko ditugu. Idatzizko lan horretan, lehenagotik azaldu zaizkien atalak garatu beharko dituzte: aurkezpena, ikastolako berriak, kirolak, eguraldia eta agurra. Irratsaioan zehar erabili beharreko sintoniak irakasleak emango dizkie; adibidez, honako hauek:

<https://www.youtube.com/watch?v=keylA0DIwWU&list=PLA13718DF6171C6D9&index=1>

<https://www.youtube.com/watch?v=or4IJG-EH2U&index=23&list=PLA13718DF6171C6D9>

Taldekide bakoitzak saioaren atal baten ardura hartuko du. Hala ere, talde-lana denez gero, guztion artean zuzendu eta adostu beharko dituzte horiek.

Gero, irakasleak talde bakoitzak idatzitakoa zuzenduko du eta, azkenik, esan beharreko guztia ahoz nola adierazi behar duten praktikatu dute.

Talde bakoitzak saio bat izango du horretarako. *Audacity* programarekin egingo ditugu grabaketak, mikrofonoa, ordenagailua eta aurikularrak erabiliz. Irakasleak kontuan hartu beharko du honako irizpide hauek betetzen direla: adierazkortasuna, ahozko adierazpena, intonazioa, etenaldiak eta tonu eta bolumen egokia.

Azkenik, beste bi saio erabiliko ditugu guztion irratsaioak entzuteko. Irratsaioak eskolako blogean edota Interneten sartzeko aukera izango dute. Hartara, teknologia berrien erabileran ere trebatuko dira.

Autoebaluazioaren erregistroa

Amaitzean, autoebaluazioa proposatuko dugu eta erregistro-taula bat bete beharko dute.

|  | TALDEA: | | | DATA: | |
|---|---------|----------|-----------|----------|----------|
| | BETI | SARRITAN | BATZUETAN | GUTXITAN | INOIZ EZ |
| Garbi eta ulertzeko moduan hitz egin dut. | | | | | |
| Gorputz-jarrera egokia mantendu dut. | | | | | |
| Ahoskera eta intonazio egokiz aritu naiz. | | | | | |
| Besteen iritziak eta txandak errespetatu ditut. | | | | | |
| Interesa eta hobetzeko nahia erakutsi ditut. | | | | | |
| Euskalki desberdinak errespetatu ditut. | | | | | |

2. jarduera: **Berba eta berba (eztabaida)**

Eztabaidaren helburua honako hau da: gai bati buruzko iritziak aurrez aurre trukatzea, arazo bat konpontzea, erabakiak hartzea edo ikuspuntu desberdinen bidez elkar aberastea, partaidetzan eta askatasunean oinarritutako giro batean.

Eztabaida egiteko urratsak

✓ **Lehenengo urratsa**

Sei edo zazpi lagunez osaturiko taldeak egin behar dira. Moderatzailea, idazkaria eta taldekideak hautatu behar dira. Idazkariak akordioak jasoko ditu eta moderatzaileak debatearen zuzentasuna zainduko du.

✓ **Bigarren urratsa**

Taldeka bildu behar dira eta talde bakoitzeko bozeramailea izendatu behar dute; hura izango baita taldearen iritzia defendatuko duena beste taldeen aurrean. Talde bakoitzak 10 minutu izango ditu pauso horiek emateko, gogoeta egiteko eta taldearen iritzia jasotzeko.

✓ **Hirugarren urratsa**

Eztabaida egitea da. Moderatzaileak eta idazkariak euren papera beteko dute.

Eztabaida nola egin

✓ **Parte hartzeko denbora**

Minutuak neurtu behar ditu moderatzaileak, eztabaida edo mahai-inguruan dauden guztiek hitz egiteko denbora eta aukera berdina izan dezaten.

✓ **Txandak errespetatu**

Pertsona bik batera hitz egiten badute, haien mezua ez da ulertuko. Beraz, hitz egiteko txandak banatu behar dira, eztabaida ordenatua izan dadin.

✓ **Gaiari heldu**

Eztabaidan adostutako gaiak hitz egin behar da soilik; beste gai batez hitz eginez gero, eztabaidatik kanpo geldituko gara.

✓ **Gainerakoak errespetatu**

Eztabaida egiterakoan, besteak errespetatzea ezinbestekoa da. Horrela egiten ez bada, eztabaida borroka bihur daiteke. Eztabaidaren helburua ideiak azaltzea eta defendatzea da.

Hori guztia lortzeko *Agrega* webguneaz baliatuko gara:

http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/eu/es-eu_2012041833_2230606/false

Jarduera honekin, helburu hauek lortuko ditugu:

- ✚ Eztabaidan parte-hartzaileak identifikatzea.
- ✚ Eztabaidan parte-hartzen dutenen funtzioak identifikatzea.
- ✚ Eztabaidarako baliabideak ezagutzea.
- ✚ Eztabaida prestatu, gauzatzea eta grabatzea.

Amaitzeko, elkarren arteko ebaluazioa egingo dugu. Horretarako honako taula hau beteko dugu:

| | IZENA | IZENA | IZENA | IZENA | IZENA |
|----------------------------------|--------|--------|--------|--------|--------|
| | BAI/EZ | BAI/EZ | BAI/EZ | BAI/EZ | BAI/EZ |
| Denbora ondo aprobetxatu du. | | | | | |
| Lanak ondo prestatzen saiatu da. | | | | | |
| Laguntza eskaini du. | | | | | |
| Errespetuz hitz egin du. | | | | | |
| Besteen iritzia errespetatu du. | | | | | |

Amaieran ikaslearen ebaluazio-erregistroa beteko dugu irakasleok. Horretarako, ebaluazio-adierazleak hartuko ditugu kontuan.

| EBALUAZIO-ADIERAZLEAK | IKASLEA | IKASLEA | IKASLEA | IKASLEA | IKASLEA |
|---|---------|---------|---------|---------|---------|
| Ea adi dagoen besteek zerbait esaten dutenean. | | | | | |
| Ea ikuspuntu ezberdinak errespetatzen dituen. | | | | | |
| Ea taldera ideiak ekartzen dituen. | | | | | |
| Ea azaldutako ideiak arrazoitzen dituen. | | | | | |
| Ea besteen argudioei arrazoiak emanez erantzuten duen. | | | | | |
| Ea bere ideiak modu antolatuan eta garbian azaltzeko gai den. | | | | | |
| Ea eztabaidaren edo lanaren gaiari eusten dion. | | | | | |
| Ea komunikazio harremanetarako arauak errespetatzen dituen. | | | | | |
| Ea lan-taldearen egoerari dagokion ahots-tonuaz mintzatzen den. | | | | | |

3. jarduera: **Dastatu euskararen lapikoa (euskalkiak)**

Jarduera honekin, euskalkiak entzutea, ulertzea eta gozatzea lortu nahi dugu. Horretarako, Ondarroako eta Berrizeko azpieuskalkiak entzungo ditugu.



<https://www.youtube.com/watch?v=XILNeXjdX94>

(Ondarroako umeak)



<https://www.youtube.com/watch?v=Uk9640RfCrw>

(Berrizeko gazteak)

Euskalkiotako umeak entzun eta gero, galdera batzuk egingo dizkiegu ikasleei eta denon artean komentatuko ditugu:

- Bi entzumenetan agertutako euskara berdina izan al da?
- Zer desberdintasun nabaritu duzu?
- Ulergarria ala ulergaitza iruditu zaizu?
- Entzuterakoan errespetuz jokatu duzu ala barre egin duzu? Zergatik?

Ondoren, euskalkien mapa jarriko diegu eta euskalkiei buruzko informazioa bilatu beharko dute informatika-gelan.



Honako galdera hauei erantzuteko bilatu beharko dute informazioa:

- Zer esan nahi du *euskalki* hitzak?
- Zenbat daude?
- Non mintzatzen dira?
- Euskalkien mugak eta lurraldeenak bat al datoz?
- Zer dira gehiago, euskalkiak ala lurraldeak? Zergatik?
- Etxean edo zure inguruan, euskalkian hitz egiten duzue ala euskara batuan?

Galderei erantzun ondoren, horietan jasotako informazioaren laburpena egingo dugu. Euskaldun guztiok darabilgun hizkuntza euskara da, baina ez da modu berean hitz egiten Euskal Herri osoan. Hitzak, aditzak, azentua, ahoskera... nabarmen aldatzen dira leku batetik bestera; hori dela eta, hainbat euskalki bereiz daitezke Euskal Herrian.

Ariketa ebaluatzeko, ikasleak bilatutako informazioa kontuan hartuko dugu eta horrekin batera, ahalegina eta jarrera baloratuko ditugu.

Azkenik, Elantxobeko azpieuskalkia praktikatzeko, The Uskis taldearen *Zelan* abestia ikasiko dugu.

Kanta: *Zelan* (The Uskis taldea)

<https://www.youtube.com/watch?v=altDBvkpViA>

Abestia ikasi eta gero, koreografia dantzatuko dugu.

Dantza

https://www.youtube.com/watch?v=2DZNpp8F_O0

4. jarduera: **El Pobaleko burdinola eta talo-tailerra (euskara herrikoian emandako azalpena entzuten)**



Horrekin batera, errotara joango gara, arto-erroteta eta gari-erroteta ikustera.

Azkenik, talo-tailerra egingo dugu, produktu hori egiten ikas dezaten. Horretarako, ehotze-gelara joango gara eta bertan, funtzionamenduaren inguruko azalpen batzuk entzun ondoren, erroteta martxan ikusteko aukera izango dugu. Jarraian, ikasleei talo-orea egiteko prozedura azalduko zaie. Ostein, ikasle bakoitzari bolatxo bana emango diete taloa egiteko; plantxan gorritu ostean, hamaiketakoa egingo dute.

Hurrengo egunean, gelan, El Pobaleko burdinolan ikusi eta entzundakoa gogoratuko dugu: baserritarren hizkera, burdinola, talo-tailerra...

Ikasleen jarrera eta ahalegina kontuan hartuko dugu ebaluazioa egiteko.

Egun batean, El Pobaleko burdinolara joango gara. Gure helburua honako hau izango da: burdingintzak eta errotaritzak Bizkaiko historian izan duten garrantzia erakustez gain, euskalkiak entzutea, ulertzea eta gozatzea. Bisitaldiaren iraupena ordubetekoa izango da eta maketak, panel irudiztatuak eta erremintak ikusiko ditugu.



4. Bibliografia

- Euskal Autonomia Erkidegoa. Urriaren 16ko 175/2007 Dekretua, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 2007ko azaroaren 13a.

Interneteko helbideak:

Helbide guztiak kontsultatu dira 2014ko irailetik 2015eko martxora bitartean.

- www.berritzegune.net/ Berritzegune nagusia:
<http://nagusia.berritzeguneak.net/hizkuntzak/hizkuntzakg-4.php>
- <http://www.agrega.hezkuntza.net/> Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila:
http://agrega.hezkuntza.net/visualizar/eu/es-eu_2012041833_2230606/false
- <http://www.youtube.es/>
De la Maza, Gabi. 2008ko uztailaren 3an. *Zelan (The Uskiz)*.
<https://www.youtube.com/watch?v=altDBvvpViA>
Txintxurreta, Amaia. 2011ko uztailaren 26an. *Zelan - The Uskiz*.
https://www.youtube.com/watch?v=2DZNpp8F_O0
EiTB Amonarriz, Kike. 2014ko martxoaren 6an. *Zein da Berrizko institutuko ikasleen euskara erabilera?* <https://www.youtube.com/watch?v=Uk9640RfCrw>
Ondarroa euskara. 2012ko ekainaren 13an. *ZALDUPEKO ESKOLA Letren III. Jaialdirako.avi* <https://www.youtube.com/watch?v=XILNeXjdX94>
PV15. 2009ko maiatzaren 15ean. *Cortina Musical C5N*.
<https://www.youtube.com/watch?v=keylA0DIwWU&list=PLA13718DF6171C6D9&index=13>
Canal de Snowblind1496. 2010eko azaroaren 16an. *Musica de intro de Chilevision Noticias* <https://www.youtube.com/watch?v=or4IJG-EH2U&index=23&list=PLA13718DF6171C6D9>
- <http://www.goear.com>
<http://en.goear.com/listen/56bbe77/lh-4a-ko-irradi-saioa-lh-4a->

- <http://www.bizkaia.net/> Bizkaiko Foru Aldundia:

http://www.bizkaia.net/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=3022&idioma=EU

Prezi aurkezpena ikusteko:

http://prezi.com/rnieit1lji2t/?utm_campaign=share&utm_medium=copy&rc=ex0share